

Fabrikazio prozesuen monitorizazioaren inguruko jardunaldia MUn

2014/06/16

Jardunaldian Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak azken urteetan landutako proiektuen emaitzen berri eman zen, proiektuak honakoak izan dira DESAFIO, ISMEC, PROMOD, PROFUTURE II, METINCOX, ADACOM, ACCENT, MALGUFAB, FUTROLL eta LEVELPRO.

Honek fabrikazio prozesuen industrian aplikatutako prozesuen monitorizazio sistemen azken berrikuntzen inguruko ikuspegi orokor bat ematea ahalbidetu zuen eta fabrikazio prozesuen eta kontrol moldagarriaren monitorizazioko azken joerak erakutsi ziren.

Halaber, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak fabrikazio aurreratuaren alorrean dituen gaitasun berriak ezagutu ahal izan ziren. Hau izan baita hainbat ikerketa taldek azken hamarkadetan lantzen diharduten gaia: materialen transformazioaren zientzia, teknologia eta prozesuak, sistema txertatuak, informazio sistemak, energia elektrikoa, diseinu prozesuak eta industria kudeaketa eta produktuaren portaera mekanikoa eta diseinua.



Fabrikazio prozesuen monitorizazioaren inguruko jardunaldia